Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

1996

5/2010 EBAZPENA, martxoaren 9koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko tranbia-programaren barruan 2010ean egin beharreko hainbat lan Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari gomendiotan uzteko Jaurlaritzaren Kontseiluaren akordioa argitaratzeko dena.

Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko martxoaren 2an egindako bileran Euskal Autonomia Erkidegoko tranbia-programaren barruan 2010ean egin beharreko hainbat lan Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari gomendiotan ematea erabaki zuenez, zabalkunde egokia izan dezan, honakoa,

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko tranbia-programaren barruan 2010ean egin beharreko hainbat lan Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari gomendiotan emateko akordioaren testua, ebazpen honen eranskin gisa doana, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 9a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako
eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
M.ª JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

1996

RESOLUCIÓN 5/2010, de 9 de marzo, de la Directora de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno «por el que se encomienda a Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea la realización de determinadas actividades en relación con el programa tranviario de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el ejercicio 2010».

Habiéndose aprobado por el Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 2 de marzo de 2010, el Acuerdo «por el que se encomienda a Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea la realización de determinadas actividades en relación con el programa tranviario de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el ejercicio 2010», y a los efectos de darle la publicidad debida,

RESUELVO:

Artículo único.– Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el texto del Acuerdo «por el que se encomienda a Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea la realización de determinadas actividades en relación con el programa tranviario de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el ejercicio 2010», que figura como anexo a la presente.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de marzo de 2010.

La Directora de la Secretaría del Gobierno
y de Relaciones con el Parlamento,
M.ª JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN MARTXOAREN 9KO 5/2010 EBAZPENAREN ERANSKINA

JAURLARITZAREN KONTSEILUARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TRANBIA-PROGAMAKO 2010EKO HAINBAT JARDUERA RED FERROVIARIA VASCA-EUSKAL TRENBIDE SAREARI GOMENDIOTAN EMATEKO AKORDIOA

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 10. artikuluak Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren esku utzi zituen trenbideen gaineko egitekoak.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 15.1.f artikuluaren arabera, Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzari dagokio lurreko eta aireko garraioaren azpiegituretako obrak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatzea.

Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari buruzko maiatzaren 21eko 6/2004 Legearen 5.4 artikuluaren arabera, entearen helburuetan sartzen da, Jaurlaritzak haren gain uzten duen eta, zuzenean edo zeharka, trenbide-garraioko azpiegiturak eraiki, zaindu eta administratzearekin zerikusia duen beste edozein eginkizun, eta bereziki, azterlan eta proiektuak idaztearekin zerikusia duten eginkizunak.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 15. artikuluak esaten duenez, «Administrazioko organoen edo zuzenbide publikoko erakundeen eskumeneko jarduera materialak, teknikoak eta zerbitzuzkoak administrazio bereko edo beste bateko organoen edo erakundeen eskuetan jar daitezke, eraginkortasunari begira komeni bada, edo jarduera horiek gauzatzeko baliabide tekniko egokirik ez badago».

Arau horren arabera, kudeatzeko gomendioa administrazio bereko organoen edo zuzenbide publikoko erakundeen artean egiten bada, administrazio horren arauetan ezarritakoari begira formalizatuko da; halako araurik ez badago, berriz, esku hartzen duten organo edo erakundeek berariaz hartuko duten erabaki baten bidez.

Euskal Autonomia Erkidegoko tranbia-programako proiektuak egiteko, eta proiektuen eta obren jarraipena egin eta kontrolatzeko burutu beharreko jarduera

ANEXO A LA RESOLUCIÓN 5/2010, DE 9 DE MARZO, DE LA DIRECTORA DE LA SECRETARÍA DEL GOBIERNO Y DE RELACIONES CON EL PARLAMENTO

ACUERDO DE CONSEJO DE GOBIERNO POR EL QUE SE ENCOMIENDA A RED FERROVIARIA VASCA-EUSKAL TRENBIDE SAREA LA REALIZACIÓN DE DETERMINADAS ACTIVIDADES EN RELACIÓN CON EL PROGRAMA TRANVIARIO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI EN EL EJERCICIO 2010

El artículo 10 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, atribuye al Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes las funciones correspondientes a ferrocarriles.

El artículo 15.1.f) del Decreto 607/2009, de 24 de noviembre, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes atribuye a la Dirección de Infraestructura del Transportes la dirección, inspección y el control de la ejecución de infraestructura del transporte terrestre y aéreo.

El artículo 5.4 de la Ley 6/2004, de 21 de mayo, de Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea incluye dentro del objeto social del ente cualquier función que le encomiende el Gobierno y que directa o indirectamente esté relacionada con la construcción, la conservación y la administración de infraestructuras de transporte ferroviario, y de forma especial las relativas a la redacción de estudios y proyectos.

Por otra parte, de conformidad con lo establecido en el artículo 15 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, «la realización de actividades de carácter material, técnico o de servicios de la competencia de los órganos administrativos o de las entidades de derecho público podrá ser encomendada a otros órganos o entidades de la misma o de distinta Administración por razones de eficacia o cuando no se posean los medios técnicos idóneos para su desempeño».

El mencionado precepto establece que la encomienda de gestión entre órganos administrativos o entidades de derecho público pertenecientes a la misma Administración deberá formalizarse en los términos que establezca su normativa propia y, en su defecto por acuerdo expreso de los órganos o entidades intervinientes.

En relación con las actividades de carácter material, técnico o de servicios destinadas a ejecución, seguimiento y control de proyectos y seguimiento y

material, tekniko eta zerbitzuzkoei dagokienean, arrazoi tekniko eta materialengatik, jarduera horiek Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari gomendiotan ematea da zentzuzkoena, baldin eta interes publikoak lortzeko eraginkorrago izan nahi bada.

Ondorioz, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren proposamenez, eta hura aztertu ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluak honakoa erabaki du:

AKORDIOA:

«***Lehenengoa***.– 2010ean Euskal Autonomia Erkidegoko tranbia-programa burutu, jarraipena egin eta kontrolatzeko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren eskumenekoak diren jarduera material, tekniko, juridiko eta zerbitzuzkoak Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari gomendiotan ematea. Kudeatzeko gomendio horrek ez du esan nahi, ez eskumenaren titulartasuna, ez eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak, lagatzen direnik.

Bigarrena.– Kudeaketa-gomendio hori burutzeko baldintza zehatzak akordio honen eranskinean datoz jasota.

Hirugarrena.– Akordio honen testua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua Jaurlaritzaren Idazkaritzak emango du».

ERANSKINA

1.– Gomendioaren xedea.

Kudeatzeko gomendio honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko tranbia-programa burutu, eta haren jarraipena egin eta kontrolatzeko 2010eko lanak egiteko arauak zehaztea.

2.– Administrazioaren eta Euskal Trenbide Sarearen arteko harremanak.

Administrazioaren eta Euskal Trenbide Sarearen arteko harremanak finkatu aurretik, zenbait figura juridiko definitzea komeni da:

Administrazioa: Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza.

Enkarguaren zuzendaria: Administrazioak izendatuko du enkarguaren zuzendaria, eta Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzaren esanetara lan egingo du. Lanen zailtasunaren arabera, enkarguaren zuzendariak talde tekniko bat bildu ahal izango du aholkuak eman diezazkion, eta, behar izanez gero, zuzendariaren izenean ere jardun ahal izango du talde horrek.

Euskal Trenbide Sarea SA (aurrerantzean, ETS): Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren mende

control del Programa Tranviario de la Comunidad Autónoma de Euskadi, concurren razones de orden técnico y material que aconsejan la encomienda de dichas actuaciones a Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea para una más eficaz consecución de los intereses públicos.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Vivienda Obras Públicas y Transportes, y previa la correspondiente deliberación, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

ACUERDO

«***Primero***.– Encomendar a Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea la realización de cuantas actividades de carácter material, técnico jurídico y de servicios que correspondientes a las competencias propias del Departamento de Vivienda Obras Públicas y Transportes sean precisas para la ejecución, seguimiento y control del Programa Tranviario de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el ejercicio 2010, sin que ello suponga cesión de la titularidad de la competencia ni de los elementos sustantivos de su ejercicio.

Segundo.– Las condiciones concretas en que se llevará a cabo la citada encomienda son las que figuran como anexo al citado Acuerdo.

Tercero.– Por la Secretaría del Gobierno se ordenará la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del texto del presente Acuerdo».

ANEXO

1.– Objeto de la encomienda.

El objeto de la presente encomienda es el de establecer las condiciones que han de regir la realización de los trabajos de Ejecución, seguimiento y control del Programa Tranviario de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el ejercicio 2010.

2.– Relaciones entre la administración y euskal trenbide sarea. Definiciones.

A los efectos de fijar las relaciones entre la Administración y Euskal Trenbide Sarea se definen las siguientes figuras jurídicas:

Administración: Gobierno Vasco. Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes. Dirección de Infraestructura del Transporte.

Director o directora del encargo: la Administración designará un Director o Directora del encargo, bajo la supervisión de la Dirección de Infraestructura del Transporte. En función de la complejidad de los trabajos el Director o Directora del encargo podrá rodearse del equipo técnico necesario que le asesorará y, en su caso, podrá actuar por delegación suya.

Euskal trenbide sarea (en adelante ETS): Ente Público de Derecho Privado dependiente del Departa-

dagoen zuzenbide pribatuko ente publikoa, agiri honetan adieraziko diren lanak egingo dituena.

ETSren ordezkaria: goi mailako teknikaria izango da, eta ETSk berak izendatuko du lanen koordinazio teknikoa burutzeko, eta Administrazioaren aurrean ETSren izenean jarduteko. ETSko talde guztiak ordezkari horren esanetara lan egingo du. Ordezkariak, enkarguaren zuzendariak eskatzen dion guztietan zuzenean emango dizkio azalpenak.

3.– Lana egiteko era.

Hilean behin, gutxienez, ETSk idatziz emango dio enkarguaren zuzendariari ordura arte egindako lan guztien berri, eta aurrera egiteko behar diren aginduak eskatuko dizkio.

ETSk agindu edo erabakiren bat eskatzen duen guztietan, eskariarekin batera, bere ustez egokiena iruditzen zaiona proposatu beharko du.

Enkarguaren zuzendariaren talde teknikoak noiznahi ikuskatu ahal izango du lanak nola doazen, ETSren bulegoetan.

Ikuskapenaren ondorio diren ohar edo aginduak enkarguaren zuzendariak jakinaraziko dizkio esleipendunari.

4.– Aurrekariak, erreferentziazko agiriak eta planteamendu orokorra.

Kudeaketa-gomendio honek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tranbia-programa burutu, eta haren jarraipena egin eta kontrolatzeko behar diren lan guztiak hartuko ditu bere baitan, eta bereziki honako proiektu hauen ingurukoak:

– Vitoria-Gasteizko tranbia - Abetxukoko adarraren 2. fasea.

– Barakaldoko tranbia.

– Leioa Unibertsitatea - Urbinaga tranbia.

5.– ETSk egin beharreko lanak.

ETSk egin beharreko lanak honela sailka daitezke:

A) Tranbia-programaren plangintza eta kontrol orokorra.

Euskal Autonomia Erkidegoko tranbia-programako proiektu eta obren jarraipena eta koordinazioa sartzen da hemen; bai proiektuak egiteko aholkularitza-kontratuena, bai eta eraikuntzakoena, kontratu horien ondorio diren plan partzialena barne.

Kontua da aldizka, kontratuen arduradunekin batera, enkargu bakoitzaren programen jarraipena egitea eta eguneratzea, eskura dagoen informazioa bateratzea, eta, aurretik finkatutako helburuak kontuan izanik, aurkezpen xume eta koherente bat atontzea, ulertzeko eta kontrolatzeko erraza gerta dadin; hartamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes que realizará los trabajos relacionados.

Delegado o delegada de ETS: Técnico Superior designado por ETS para hacerse cargo de la coordinación técnica de los trabajos y representar al Ente frente a la Administración. Todo el equipo de ETS dependerá del Delegado o Delegada quien informará directamente y cuantas veces sea requerido al Director o Directora del encargo.

3.– Desarrollo general de los trabajos.

Al menos una vez por mes, ETS informará por escrito al Director o Directora del encargo sobre el estado de los trabajos hasta entonces realizados, y solicitará las instrucciones pertinentes para la continuación de aquéllos.

Siempre que ETS solicite alguna instrucción o decisión, deberá proponer a su vez aquélla que a su entender considere como más apropiada.

En cualquier momento, el Equipo Técnico de la Dirección del encargo podrá inspeccionar la marcha de los trabajos en los locales de ETS.

Las observaciones o prescripciones que se deriven de la inspección serán comunicadas al adjudicatario a través del Director o Directora del encargo.

4.– Antecedentes, documentos de referencia y planteamiento general.

Los trabajos objeto de la presente encomienda comprenderán todas las labores necesarias para la Ejecución, seguimiento y control del Programa Tranviario de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en especial los proyectos:

– Tranvía de Vitoria-Gasteiz - Ramal Abetxuko 2.ª fase.

– Tranvía de Barakaldo.

– Tranvía de Leioa Universidad - Urbinaga.

5.– Trabajos a realizar por ETS.

Los trabajos a realizar por ETS se agrupan en las siguientes áreas:

A) Planificación y control global del Programa Tranviario.

Esta actividad comprende el seguimiento y coordinación general de Proyectos y Obras del Programa Tranviario de la Comunidad Autónoma de Euskadi, tanto a nivel de Asistencias para el desarrollo de proyectos como en relación con la construcción, integrando los planes parciales de avance que se deduzcan en cada momento de los citados encargos.

Se trata fundamentalmente de un seguimiento periódico y una actualización de los programas de cada encargo en relación con los respectivos responsables, una homogeneización de la información disponible y la realización de una presentación sencilla y coherente con los objetivos marcados previamente, de tal mane-

ra, erabaki zuzentzaileak unerik egokienean hartzeko modua eskaini ahal izango baita.

Lan hori guztia egoera-txosten orokor batean jasoko da.

B) Azterlanak eta txostenak.

ETSk Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzak, agintzen dizkion txosten eta azterlan guztiak idatziko ditu; eskatutako agiriak gomendiotan emandako gaiarekin zuzenean nahiz zeharka erlazionaturikoak izan daitezke.

Hainbat faseren barruan, proiektuak idaztekoan, jendaurrera ateratzekoan eta obrak eraikitzekoan, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak herritar eta kolektiboek aurkezten dituzten galdera eta alegazioei erantzuteko txostenak idatzi beharra izaten du.

ETSk erreklamazio horiek aztertzen lagunduko dio sailari, eta horrek eskatzen dizkion txostenak idatzi, eta bere profesionaltasunak eta Administrazioaren interesak agintzen dizkion ekintzak proposatuko ditu.

Era berean, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak txosten teknikoak ere eskatu ahal izango dizkio, baldin eta gaiarengatik berarengatik ingeniaritzako arlo jakin bateko adituen parte-hartzea beharrezko bada.

Alde horretatik, ETSren egitekoa izango da arazoa ahalik eta gehien zehaztea, behar diren adituen baldintzak identifikatzea, eta arazoaren analisia kalitatezkoa izango dela bermatzeko moduko gaitasuna zein enpresa edo profesionalek duen ikertzea, betiere kontsultore-lan horiek koordinatuz eta gainbegiratuz, proiektuaren koherentzia orokorrari eusteko.

C) Informazio-azterlanak egitea eta proiektuak egin eta zuzentzea.

Euskal Trenbide Sareak Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak Euskal Autonomia Erkidegorako eskatzen dizkion tranbia-proiektuak idatziko ditu, eta Sailak hirugarrenei esleitutakoak zuzenduko ditu.

D) Eraikuntzaren kudeaketa.

Zerrenda itxi bat osatzeko inolako asmorik gabe, lan hauek egingo dira besteak beste:

D.1.– Obra zibilen eta ekipamenduen zuzendaritza.

Behin obrak eraikitzeko kontratua esleitutakoan, Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzak obra-zuzendari bat izendatuko du; obra-zuzendari horrek ETSren ordezkariaren esanetara jardungo du eta kontratu hori bete dadin zainduko du, bai alderdi teknikoei, bai alderdi ekonomikoei dagokienean, eta udal-

ra que sea fácil su comprensión y control, permitiendo la toma de decisiones correctoras en el momento más adecuado.

A nivel documental esta actividad se recogerá periódicamente en un Informe de Situación General.

B) Elaboración de estudios e informes.

Euskal Trenbide Sarea procederá a la redacción de todos aquellos informes y estudios que le sean encomendados por la Dirección de Infraestructura del Transporte, directa o indirectamente relacionados con el objeto de la presente encomienda.

Durante las fases de redacción de proyectos, información pública y de construcción de las obras objeto del presente encargo, el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes requiere la redacción de informes de respuesta a distintas demandas y alegaciones de ciudadanos y colectivos.

ETS asistirá al Departamento en el estudio de las mismas, redactará los informes particulares que le requiera éste, proponiendo las acciones que le dicte su buena práctica profesional y el interés de la Administración.

Asimismo, el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes puede requerir la redacción de informes técnicos que por su índole exigen la participación de expertos en un campo determinado de la ingeniería.

La labor de ETS en este aspecto se centra en la definición lo más concreta posible del problema, identificación de las condiciones de expertos que se requieren y la investigación de las empresas o profesionales que dispongan de la capacidad necesaria para garantizar la calidad del análisis requerido, manteniendo en todo momento la coordinación y supervisión de los trabajos de consultoría con el fin de asegurar la coherencia general del proyecto.

C) Dirección, elaboración de proyectos y estudios informativos.

Euskal Trenbide Sarea elaborará proyectos de tranvías en la Comunidad Autónoma de Euskadi por encargo del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, o dirigirá aquellos que sean adjudicados a terceros por el Departamento.

D) Gestión de construcción.

Sin ánimo de exhaustividad, los trabajos consistirán en:

D.1.– Dirección de obras civiles y equipos.

Una vez adjudicada la construcción de las obras, la Dirección de Infraestructura del Transporte procederá a la designación de un Director o Directora de Obra que, bajo la supervisión del Delegado o Delegada de ETS, tomará a su cargo la responsabilidad del cumplimiento de dicho contrato tanto en los aspectos

agintariekiko eguneroko harremanak ere horren ardura izango dira.

Obra-zuzendaria ETSren langilea izango da, eta, behar izanez gero, zuzendari-alboko baten eta aholkularitzarako talde tekniko baten laguntza izango du.

Egitekoen artean, eraikuntza bera akuilatzeaz gain, kontratistarengandik jasotako agiri guztiak batu beharko ditu, egokiak diren ikusi, eskainitako epeekin bat datozen egiaztatu, argibide osagarriak eskatu eta egin beharreko obraren aurreikuspenei eutsi. Lan hori guztia obren aurrerabidearen hileko ziurtagirietan eta hileko txostenetan islatuko da.

Obra-zuzendariak Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren izenean jardungo du izaera formala duten zenbait jarduketatan; besteak beste, zuinketa-agiria sinatzekoan eta esleipendunak prezioak edo bestelako alderdi garrantzitsu batzuk aldarazteko aurkezten dituen iradokizunei buruzko lehenengo eztabaidetan.

Halaber, obra-zuzendaria izango da jabearen ordezko teknikoa obrek ukitzen dituzten zerbitzu- eta hornidura-konpainiekin koordinatzeko izan beharreko elkarrizketa eta bileretan.

Obrak zuzentzen laguntzeko talde tekniko bat izango du obra-zuzendariak, eta talde horren ardura izango da egunero-egunero obrak kontrolatu, kalitatea bermatu, geometriak eta zuinketa egin, saiakuntzak burutu eta obrak proiektuarekin bat datozela egiaztatzeko jarraipena egin, lan-oharrak idatzi, eta ziurtagiriak idatzi aurreko oharrak prestatzeko lana.

D.2.– Kontsultoreak.

Atal honetan eraikuntza-lanetan edo, are proiektuak idaztekoan, ingeniaritzaren arlo jakin batzuetako adituek parte hartzea eskatzen duten lan bereziak sartzen dira.

ETSren lana izango da, arazoa zer-nolakoa den ahalik eta gehien zehaztea, behar diren adituen ezaugarriak finkatzea, eta eskatutako analisia behar bezalako kalitatearekin egingo dela bermatzeko moduko gaitasuna zein enpresa edo profesionalek daukaten ikertzea.

Ildo horretatik, ETS arduratuko da arazoa zehaztu eta behar diren adituak hautatzeaz, eta aholkularitzalanak koordinatu eta ikuskatuko ditu, proiektuaren koherentziari eutsi ahal izateko eta hasierako helburu nagusiarekiko kongruentea dela bermatzeko.

técnicos como económicos así como en las relaciones cotidianas con las autoridades municipales.

El Director o Directora de Obra pertenecerá a la plantilla de ETS y estará asistido, en su caso, por un adjunto y por un equipo técnico de Asistencia en cada obra.

Entre sus actividades, además de la activación de la propia construcción en sí, debe integrar la información documental recibida del contratista, comprobando su idoneidad y su ajuste a los plazos ofrecidos, solicitar aclaraciones adicionales y mantener al día las previsiones de obra por ejecutar. Documentalmente este trabajo se refleja tanto en la preparación de las certificaciones mensuales de avance de las obras como en la redacción de informes mensuales.

El Director o Directora de Obra actúa en representación del Departamento en la firma del Acta de Comprobación de Replanteo entre otras actuaciones que tienen carácter formal, así como en una primera discusión en relación con posibles precios o sugerencias de modificaciones importantes que pudiera plantear el adjudicatario.

Igualmente el Director o Directora de Obra representa técnicamente a la propiedad en las conversaciones y reuniones de coordinación que deban celebrarse con las compañías de servicios y suministros que puedan plantear interferencias con las obras.

En el desarrollo de sus funciones el Director o Directora de Obra contará con el apoyo de un equipo técnico de asistencia a la Dirección de Obra sobre el que descansa el día a día de sus actividades de control, garantía de calidad, geométricas y de replanteo, ensayos y seguimiento de la adecuación de las obras al proyecto, redacción de notas de trabajo y preparación previa de certificaciones.

D.2.– Consultorías.

Las actividades recogidas en este capitulo guardan relación con trabajos específicos que surgen durante el periodo de construcción e incluso durante la realización de los proyectos, trabajos que por su índole exigen la participación de expertos en un campo determinado de la ingeniería.

La labor de ETS en este aspecto se centra en la definición lo más concreta posible del problema, identificación de las condiciones de expertos que se requieren y la investigación de las empresas o profesionales que dispongan de la capacidad necesaria para garantizar la calidad del análisis requerido.

En este sentido, ETS se responsabilizará de los trabajos previos de identificación del problema y de la selección de los colaboradores necesarios, manteniendo en todo momento la coordinación y supervisión de los trabajos de consultoría con el fin de asegurar la coherencia general del proyecto y su congruencia con el objetivo marcado en el momento de su definición.

D.3.– Obrek ukitutakoen kudeaketa.

Herri barruan obrak egiteak berekin dakar trafikoa, zerbitzuak eta bestelakoak ukitzea.

ETSk, erasandako horiek kudeatzeko ardura bere gain hartuko du, herritarrei ahalik eta enbarazu txikiena egiteko.

Egiteko horien artean sartuko dira:

• Trafikoaren kudeaketa.

ETS plangintzarik onena egiten saiatuko da, obren eragina ahalik eta txikiena izan dadin, eta, zenbaitetan nahitaez sortuko diren ibilgailu-ilarak arintze aldera, trafikoarentzat alternatiba egokienak proposatzeko.

Trafikoaren kudeaketarako eskema horren barruan, arlo horretan ardura duten udal-agintariekin harremanak izan beharko dira, arazo gehien non sor daitezkeen jakiteko, trafikoari dagokionean arazoak leku jakin batean pilatzea eragingo luketen aldi bereko obrarik ez egiteko, eta, zuzenean trafikorako alternatibak ez izan arren, trafiko hori oro har hobetzen lagun dezaketen alternatibak proposatzeko.

• Zerbitzuen kudeaketa.

Obra zibileko proiektu bakoitzean behar bezala zehaztuta daude obrek erasandako zerbitzuak desbideratu eta lehengoratzeari buruzko xehetasunak. Horretarako kontuan izan dira kasuan kasuko zerbitzuak hornitu edo kudeatzen dituzten konpainiek emandako datuak, eta zerbitzu horiek non dauden ikusteko egin diren katak.

ETSk zorrotz jarraituko ditu erasandako zerbitzuen zuinketa, desbiderapena eta lehengoratzeko lanak, eta kasuan kasuko enpresarekin batera koordinatuko du zein diren desbideratu eta lehengoratzeko konponbiderik egokienak, teknika eta ekonomiaren aldetik, betiere obra-kontratua bere osotasunean hartuta.

Era berean, obra-kontratuetako lanen ondorioz, aurrez ezagutzen ez zen beste zerbitzuren bat agertuz gero, ETSk, beharrezkoa bada, zerbitzu hori desbideratzeko eta lehengoratzeko konponbidea adostuko du hornidura-konpainiarekin eta kontratistarekin.

D.4.– Laneko segurtasunaren eta osasunaren kudeaketa.

Atal honetan, obretako istripuak ahalik eta gehien murrizteko modua eskaintzen duten laneko segurtasun eta osasun mailei eutsi ahal izateko beharrezko diren prebentzio-lan guztien jarraipena egin eta suspertzeko lanak sartzen dira.

Proiektu bakoitzaren baldintzen orrian lanak hasi aurretik zer prozedura idatzi behar den adierazten denez, ETSk prozedura horiek idazten direla zaintzeaz aparte, hobekuntzak proposatuko ditu, formari nahiz edukiari dagokienean, eraginkorragoak izan daitezen

D.3.– Gestión de afecciones por obras.

La realización de una obra urbana conlleva la aparición de una serie de afecciones al tráfico, servicios y otros.

ETS se encargará de la gestión de estas afecciones, con la finalidad de minimizar su incidencia en la vida ciudadana.

Estas tareas incluyen:

• Gestión de tráfico.

ETS analizará la mejor planificación de las obras para reducir la incidencia y ofrecer soluciones alternativas de tráfico que ayuden a paliar las congestiones que irremediablemente se producirán en algunos momentos.

Dentro de este esquema de gestión de tráfico se incluyen las relaciones con los responsables municipales de este área con objeto de prever los aspectos más conflictivos, evitar solapes de obras que pudieran ser acumulativas desde el punto de vista de la afección al tráfico y proponer alternativas no sólo de tráfico sino también de posibles procedimientos constructivos que redunden en la mejora general del tráfico.

• Gestión de servicios.

Dentro de cada uno de los proyectos de obra civil se encuentran definidos los desvíos y reposición de servicios afectados por las obras, obtenidos normalmente a partir de los datos aportados por las propias compañías suministradoras o gestoras de los servicios respectivos, así como mediante la realización de catas puntuales de detección de los mismos.

ETS hará un seguimiento detallado del replanteo, desvío y reposición de los servicios afectados, y coordinará con la correspondiente empresa suministradora las soluciones de desvío y reposición más idóneas técnica y económicamente, siempre enmarcadas en la globalidad del contrato de obras.

Asimismo, siempre que como consecuencia de los trabajos de los contratos de obras aparezcan nuevos servicios no detectados previamente, ETS arbitrará soluciones de reposición y desvío junto con la compañía suministradora y el Contratista de las obras, en caso de que sea necesario.

D.4.– Gestión de seguridad y salud laboral.

Esta actividad comprenderá el seguimiento y activación de todos los trabajos de prevención que deban realizarse para mantener los niveles de Seguridad y Salud Laboral en las obras dentro de los márgenes necesarios para reducir al mínimo los accidentes.

Dado que en los pliegos de cada proyecto se indican los procedimientos que deben redactarse previamente al inicio de los trabajos, ETS controlará no solo su ejecución sino que propondrá las mejoras de redacción y de fondo que permitan hacerlos operati-

eta segurtasun maila altuagoak erdiesten lagun dezaten.

ETSren lan hori segurtasun- eta osasun-planen kudeaketari buruzko ikuskapen-txostenetan jasoko da.

Gainera, ETSk prestakuntza egokia izango duen teknikari bat edo gehiago izan beharko ditu, obrak egiten diren bitartean edota obra-proiektua idazten den bitartean, segurtasuna eta osasuna koordinatzeko. Teknikari horiek, ETSren ordezkariak proposatu, eta Garraio Azpiegituraren zuzendariak izendatuko ditu.

D.5.– Kalitatea bermatzeko kudeaketa eta ingurumenaren kudeaketa.

Atal honetan egitura, osagai eta instalazio guztiak, kontratu, kode, arau eta diseinurako zehaztapenei jarraituz eraikitzen direla egiaztatzeko behar diren ekintzen jarraipena egin eta suspertzeko lanak sartzen dira.

ETSk kontratistek eta hornitzaileek kontratuaren hasieran aurkeztutako kalitatea bermatzeko planen auditore gisa jardungo du, eta kontratuen zuzendariei ebaluazio, iruzkin eta onarpenerako aholkuak emango dizkie.

Lan hori, obrek dirauten artean edo obren fase bakoitzerako kontratistek aurkeztu beharreko kalitate-planetan ere burutu beharko da.

Aldi berean, kalitate-plan bakoitzean jasotako ekintzak nola burutzen diren kontrolatuko du, eta lanen garapenaren arabera, jarduketa horiek egokitzeko proposatu ahal izango du, plan horiek eraginkorrak eta praktikoak izan daitezen, eta obrak kalitate hobekoak izaten lagun dezaten.

Bestetik, ETSk arreta berezia jarriko du kontratuaren ondorioz egin beharreko lanak ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izateko irizpideei jarraituz egin daitezen, eta arlo honetan indarrean dagoen legeria betetzen dela zainduko du.

Honako alderdi hauek zainduko ditu bereziki:

– Aginpidea duen organoak kasuan kasuko obrarako onartutako ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpenean jasotako kontrol- eta zainketa-neurri guztiak eta jarduteko erak betetzen direla.

– Obra bakoitzerako kontratistak proposatu duen kalitatea bermatzeko planean ingurumena kudeatzeko jasotako neurriak betetzen direla, eta indarrean dagoen legeriarekin eta araudiarekin bat datozela.

Kontratu honetan aurreikusitako gainontzeko jarduera guztietan, ETSk arreta berezia jarriko du baliabide natural gutxiago erabiltzeko, zabor gutxiago sortvos y contribuyan a la consecución de un mayor nivel de seguridad.

Esta labor de ETS tendrá un reflejo documental en los correspondientes informes de auditoría de gestión de los Planes de Seguridad y Salud.

Asimismo, ETS deberá disponer de un técnico o técnicos con la formación adecuada que, tras su nombramiento por la Dirección de Infraestructura del Transporte a propuesta del Delegado o Delegada de ETS, ejerza la figura de Coordinador en materia de Seguridad y Salud durante la ejecución de las obras y/o durante la elaboración del proyecto de obra.

D.5.– Gestión de garantía de calidad y gestión medioambiental.

Esta actividad comprenderá el seguimiento y activación de las acciones necesarias para confirmar que todas las estructuras, componentes e instalaciones se construyen de acuerdo con el contrato, códigos, normas y especificaciones de diseño.

En este campo, ETS actuará en primer lugar como auditor de los Planes de Garantía de Calidad presentados por los Contratistas y Suministradores al iniciarse los respectivos contratos, asesorando a la Dirección de los Contratos en su evaluación, comentarios y aprobación.

Esta actuación tendrá continuidad en los sucesivos Planes de Calidad de cada actividad o fase de las obras, a presentar por los Contratistas durante el desarrollo de las mismas.

Simultáneamente, ETS controlará la ejecución de las acciones incluidas en cada uno de los Planes de Calidad, proponiendo la adecuación de estas actuaciones en función del desarrollo de los trabajos, con el fin de conseguir que los citados Planes resulten prácticos y operativos, y contribuyan a la consecución de un mayor nivel de calidad de las obras.

Por otro lado, ETS velará por la ejecución de las actividades objeto de este Contrato bajo criterios de minimización de impactos medioambientales, así como por el cumplimiento estricto de la normativa vigente a este respecto.

Se vigilará en concreto:

– La cumplimentación de las medidas de control, vigilancia y de prácticas medioambientales en obra que se establezcan en las Declaraciones de Impacto Ambiental de los proyectos respectivos, dictadas por el Órgano ambiental competente.

– El cumplimiento de las medidas de gestión medioambiental incluidas en el Plan de Aseguramiento de Calidad de cada obra, propuesto por el Contratista, y su adecuación a la legislación y normativa vigente.

En todos las demás actividades previstas en este contrato, ETS adoptará medidas y prácticas de gestión medioambiental, encaminadas a reducir su con-

tzeko, zabor horiek hobeto kudeatzeko eta halakoak ahal den neurrian birziklatzeko.

E) Kontratazioaren arloko laguntza.

ETSk lehiaketa eta lizitazioetarako baldintzen orriak prestatu eta egokitzen lagunduko dio Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzari; laguntza administrazioaren arlokoa, nahiz teknikoa izango da, eta laguntza tekniko horrek alderdi orokorrak nahiz zehatzak hartuko ditu bere baitan.

Atal honetan honako egiteko hauek sartzen dira: enkargu bakoitzerako klausula bereziak idatzi, antzekoak diren enkarguetan ohikoak izan arren kasu bakoitzean argibideak eskatzen dituzten alderdiak zuzendu, eta proiektu batzuetako eta besteetako baldintzen pleguak homogenizatu, hortik aurrera aplikatzeko irizpideak bateratzeko.

Behin pleguen zirriborroa prestatutakoan, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari dagokio ofizial egitea, edo beharrezkoak badira, zuzenketak egitea, eta lizitaziorako agirien artean sartu ahal izateko, onartzea.

ETSren lana ordea, ez da kontratazioaren une horretan amaitzen, baldintzen orria prestatzen aritu den talde teknikoa lehiaketan parte hartu nahi duten kontratisten zerbitzura jarraituko baitu, eta haien iruzkinak jasoko ditu, aurrerantzean idatzi beharrekoetan argibide edo zuzenketa gisa baliagarriak gerta baitaitezke.

Kontratistek eskaintzak prestatzeko duten epean, ETSk talde tekniko bat izango du lehiatzaileek aurkezten dizkioten kontsultei erantzuteko prest, betiere eskatzaile guztien aukera berdintasuna bermatuko duen Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailarekiko lankidetza-eskemaren barruan.

Lehiaketan parte hartu dutenen gutun-azalak irekitakoan, ETSko teknikariek lehiaketan parte hartzeko aurkeztu diren eskaintzak eta proposamenak aztertu, analizatu eta homogeneizatzeari ekingo diote.

Egitekoen sorta honetan honako hauek sartzen dira: konparazio-taulak prestatzea; baldintzen orrietan finkatutako lehentasunei jarraituz baremoak aplikatzea; eta, beharrezkoa den neurrian, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari enpresa lizitatzaileekin izan nahi dituen elkarrizketetarako eta kontsulta eta argibideetarako laguntza teknikoa eskaintzea. Lantegi hori kontratua esleitzeko proposamen-txostenarekin amaituko da. Txosten horretan Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak erabakiak hartu ahal izateko behar dituen irizpen-osagai adierazgarrienak jasoko dira.

sumo de recursos naturales y su generación de residuos, a gestionar los mismos y a aumentar el grado de reciclaje de éstos.

E) Apoyo en contratación.

ETS asistirá a la Dirección de Infraestructura del Transporte en la preparación y adecuación de todos los pliegos de condiciones de cada concurso o licitación, tanto a nivel administrativo como técnico, y éste en su doble aspecto de general y particular.

Esta actividad comprende la redacción de las cláusulas específicas de cada encargo y la corrección de los aspectos que siendo habituales en encargos similares exigen en su caso aclaraciones, así como la homogeneización de los pliegos de condiciones de los diferentes proyectos con objeto de unificar criterios de posterior aplicación durante las obras.

Una vez preparados los pliegos como borradores es el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes del Gobierno Vasco quien decide su oficialización o correcciones si procede y su aprobación para formar parte de los documentos de la licitación.

Los trabajos de ETS no terminan en ese momento dentro del concepto de contratación pues el equipo técnico que ha intervenido en su realización permanece a disposición de los contratistas interesados en el concurso y recoge sus comentarios por si pudieran ser de utilidad como aclaraciones o correcciones en futuras redacciones.

En el periodo destinado a la preparación de ofertas por parte de los contratistas, ETS dispondrá igualmente de un equipo técnico dispuesto a la resolución de cuantas consultas sean presentadas por los concursantes, dentro de un esquema de colaboración con el Departamento que mantenga en todo momento la salvaguardia de la igualdad de oportunidades para todos los ofertantes.

Una vez abiertas las plicas del Concurso, los técnicos de ETS proceden al estudio, análisis y homogeneización de las diferentes ofertas y propuestas que se hayan presentado al Concurso.

Esta actividad comprende además la preparación de cuadros comparativos, la aplicación de baremos según prioridades marcadas por los pliegos del concurso, y en la medida en que fuere necesario soportar técnicamente las consultas, aclaraciones y entrevistas que el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes desee en cada caso mantener con las empresas licitantes. Habitualmente esta actividad termina con la redacción de un informe propuesta de adjudicación que recoge los elementos de juicio más representativos para facilitar la toma de decisiones por parte del Departamento.

F) Beste erakundeetako gestioak eta haiekiko koordinazioa.

Tranbiako obrak egiteko espazio publikoak okupatu beharra dago, batzuetan aldi baterako, beste batzuetan behin betiko. Espazio publiko horiek, berriz, udalarenak, edo-eta beste erakunde eta administrazio batzuenak izan daitezke, eta, hortaz, proiektuak eta beste interes orokor batzuk uztartzeko koordinazioneurriak hartu eta gestioak egin beharko dira.

G) Desjabetzeen kudeaketaren arloko laguntza.

Obrek erasandako ondasun eta zerbitzuak aldi baterako okupatu edo desjabetzeko behar diren espedienteen inguruko lanak sartzen dira hemen. Lan horiek Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko lege-aholkularitzako zerbitzuekin elkarlanean burutuko dira.

Lehenengo eta behin, proiektuetan bildutako datuak egiaztatu, eta, behar izanez gero, osatu egingo dira, desjabetzeko jardunbidean aurrerago egin beharreko izapideak erraztu eta arintze aldera; eta horrek identifikaziorako ikerketa lan sakona egitea eskatzen du.

Ahalik eta datu gehien egiaztatutakoan, ETSk zerrenda ofizialak osatuko ditu, legeak eskatutako datu guztiekin, sailak argitara dezan.

Atal honen barruan, ETSk bilerak izango ditu azalpenak eskatzen dituzten edo-eta desjabetzearekin ados ez dauden interesdunekin, aurkeztutako alegazioak jaso eta aztertu egingo ditu, alegazio horiei erantzuteko aldeko eta kontrako argudioak emango ditu, eta jardunbidean aurreikusitako jarduketetarako laguntza juridikoa eta teknikoa eskainiko du.

Eskatutakoari jarraituz, ondasun eta eskubideen balioespenak egiten parte hartuko du ETSk; eta interesdunek azaltzen dituzten argudioak entzungo ditu, eta ondoren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari horren aurrean zer-nolako jarrerak har ditzakeen adieraziko dio. Ondasun eta eskubideak desjabetzeko jardunbidearen arabera okupatu aurretik egin beharreko aktetan, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren izenean jardungo du.

Lan horren emaitza bukaeran idazten diren adostasun-aktetan islatuko da.

H) Jendearentzako etengabeko arreta- eta informazio-zerbitzua.

Euskal Trenbide Sareak tranbia-programaren barruan Eusko Jaurlaritzak abiarazten dituen proiektuen eta obren berri ematen lagunduko dio Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari.

Beharrezkoa gertatzen denean, ETSk herritarrentzako arreta-bulegoa jarriko du, tranbia egiteko obren

F) Gestiones y coordinación con otras instituciones.

La realización de obras tranviarias requiere la ocupación temporal o definitiva de espacios públicos, en unos casos municipales y en otro patrimonio de otras instituciones o administraciones, por lo que de forma regular deben realizarse gestiones y coordinar medidas para compaginar diferentes intereses generales y los propios proyectos.

G) Apoyo en gestión de expropiaciones.

Comprende la realización, en estrecha colaboración con los servicios jurídicos del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, de todas las actividades relacionadas con los expedientes necesarios para la expropiación u ocupación temporal de bienes y servicios afectados por las obras.

Se inicia con una comprobación, y eventualmente con una ampliación, de los datos recogidos en proyectos, a fin de facilitar y agilizar al máximo los posteriores trámites del procedimiento expropiatorio, lo que obliga a un trabajo importante de investigación para su completa identificación.

Una vez confirmado el mayor número de datos posibles, ETS redactará para su publicación por el Departamento las listas oficiales de afectados con indicación de los datos que marca la ley.

Dentro de esta área de actividades ETS mantendrá reuniones con los afectados que soliciten explicaciones o que deseen exponer sus posturas contrarias al expediente abierto, recibirá y estudiará las alegaciones que se presenten, informará los argumentos en pro y en contra que puedan invocarse en las resoluciones de dichas alegaciones y soportará jurídicamente y técnicamente las diversas actuaciones contempladas en el procedimiento.

Siguiendo los pasos requeridos ETS participará en la realización de las valoraciones de las afecciones y escuchará los argumentos expuestos por los afectados informando al Departamento de las posibles posturas a tomar. Como asistencia del mismo en este campo ejercerá en su nombre la representación que se le delega en las actas previas que contemple el procedimiento expropiatorio.

El resultado de este trabajo quedará reflejado en las actas de acuerdo que finalmente se redacten.

H) Servicio de atención permanente e información al público.

Euskal Trenbide Sarea colaborará con el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes en la difusión de los proyectos y obras que emprenda el Gobierno Vasco en desarrollo del Programa Tranviario.

Cuando sea necesario, ETS mantendrá una Oficina de Atención al Ciudadano, dotada con los me-

gainean eta, oro har, proiektuaren gainean herritarrek aurkeztu nahi dituzten kexak, kontsultak, iradokizunak, eta antzekoak zentralizatzeko behar diren baliabide guztiekin. Bulegoetan proiektua ondo ezagutzen duen jendea arituko da lanean, eta egiteko hori burutzeko behar diren agiriak izango dituzte.

Pentsatzekoa da kontratu honek irauten duen bitartean, obren hasierekin edota proiektu berrien aurkezpenarekin batera, informazioa eta komunikazioa etengabe eskaintzeko era hori osatu beharra izatea, jarduketa jakin indartsuagoekin, hau da, argitalpenekin, erakusketekin, jarduketa zehatzen berri emateko kanpaina bereziekin.

6.– Egindako lanen balioespena eta ordainketa.

Gomendiotan emandako lanek, BEZa barne, bi milioi zortziehun eta hirurogeita hiru mila eta laurehun euro eta laurogeita lau zentimo (2.863.400,84) egingo dutela jotzen da; hona hemen kontzeptuei buruzko xehetasunak:

dios necesarios para centralizar las quejas, consultas, sugerencias, etc. que se puedan plantear en relación a la marcha de las obras, y del proyecto en general. Las oficinas dispondrán de personal conocedor del Proyecto, así como la documentación necesaria para poder cumplir su misión.

Es previsible que a lo largo del tiempo de duración del presente contrato sea necesario reforzar esta presencia continuada de información y comunicación con actuaciones puntuales de mayor intensidad, publicaciones, exposiciones, campañas especiales de lanzamiento de determinadas actuaciones, coincidiendo con inicio de obras y/o presentación de nuevos proyectos.

6.– Valoración y abono de los trabajos realizados.

Los trabajos encomendados tienen una valoración de dos millones ochocientos sesenta y tres mil cuatrocientos euros con ochenta y cuatro centimos (2.863.400,84), IVA incluido, en base a los siguientes conceptos:

	Kontzeptua	Goren mugako prezioa	Neurketa	Zenbatekoa
1.	Tranbia programaren plangintza eta kontrol orokorra	77.938,75	100/%	77.938,75
2.	Azterlanak eta txostenak egitea	407.356,60	100/%	407.356,60
3.	Proiektuak egin eta zuzentzea	471.766,32	100/%	471.766,32
4.	Eraikuntzaren kudeaketa	1.079.530,64	100/%	1.079.530,64
5.	Kontratazioaren arloko laguntza	78.602,69	100/%	78.602,69
6.	Beste erakunde batzuetako kudeaketa-lanak eta koordinazioa	98.406,20	100/%	98.406,20
7.	Desjabetzeen kudeaketaren arloko laguntza	78.628,00	100/%	78.628,00
8.	Jendearentzako arreta eta informazio zerbitzua	176.219,80	100/%	176.219,80
		Aurrekontu garbia		2.468.449,00
		BEZ (% 16)		394.951,84
		Guztira		2.863.400,84

Enkargu honen ondorioz egiten diren lanak hilero ordainduko dira, egindako lanak egiaztatutakoan. Horretarako, kasuan kasuko faktura aurkeztu beharko zaio Administrazioari.

	Concepto	*Par. Alz.*	*Medición*	*Importe*
1.	*Planificación y Control Global Programa Tra*	*77.938,75*	*100/%*	*77.938,75*
2.	*Elaboración de Estudios e Informes*	*407.356,60*	*100/%*	*407.356,60*
3.	*Dirección y Elaboración de Proyectos*	*471.766,32*	*100/%*	*471.766,32*
4.	*Gestión de Construcción*	*1.079.530,64*	*100/%*	*1.079.530,64*
5.	*Apoyo en Contratación*	*78.602,69*	*100/%*	*78.602,69*
6.	*Gestión y Coordinación con otras Instituciones*	*98.406,20*	*100/%*	*98.406,20*
7.	*Apoyo en Gestión de Expropiaciones*	*78.628,00*	*100/%*	*78.628,00*
8.	*Atención e Información al Público*	*176.219,80*	*100/%*	*176.219,80*
		Presupuesto Neto		*2.468.449,00*
		IVA (16%)		*394.951,84*
		Total Contrato		*2.863.400,84*

El abono de los trabajos objeto del presente encargo se efectuará mediante pagos mensuales, debiendo en cada caso justificar los trabajos realizados. Todos los pagos se realizarán previa presentación de la factura a conformidad de la Administración.